

# BI URTEKO HAUREN ENKULTURAZIO PROZESUAREKIKO HAUR HEZKUNTZAKO MAISU-MAISTREN IRUDIKAPEN SOZIALAK: METODO MISTOEN BIDEZKO IKERKETA

**Tesiaren egilea:** Olalla Juaristi Larrinaga

**Unibertsitatea:** Mondragon Unibertsitatea (MU)

**Doktorego-programa:** Berrikuntza eta Esku-hartzea Hezkuntzan

**jakintza-arloa:** Hezkuntzaren soziologia

**Tesi-zuzendaria:** Iñaki Larrea, Alexander Muela (zuzendarikidea)

**Tesiaren laburpena:**

Gure gizartean, ohikoa bihurtu da haurrak adin goiztiarretik haur-eskolan denbora ematea, eta, ondorioz, hezkuntza-erakundea bihurtu da gizarteratzeko toki esanguratsua. Gizartean dagoen joera horren isla da Espainiako Estatuan haurren % 90 hiru urterekin haur-eskolara joatea edo 4 urteko haurren gehiengoa matrikulatuta egotea. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, eskolatze goiztiarrean aitzindarizat hartu da, bi urteko haurren eskola publikoaren eta itunpekoaren eskaintzak bizkortu egin baitu eskolarako sarrera. Egun Araba, Bizkai eta Gipuzkoako haur gehienak eskolara doaz 2 urte dituztela. Ondorioz, eskola-denbora bihurtu da denbora sozial adierazgarrienetako bat, eta zenbait lanetan aztertua izan da.

Lehen haurtzaroko sozializazio-prozesuek eta nortasunaren eraikuntzak pertsonaren garapenean duten garrantzian oinarrituta, azpimarratu da helduen rola eta egitekoa, eta nabarmendu da harreman afektiboak, zaintza eta babesa nagusitzen diren inguruneen garrantzia. Haur Hezkuntzako maisu-maistra, eredu esanguratsua izateaz gain, eskolako testuinguru sozialean haurren behatzaile eta ikusle bakarra bihurtu da. Familiarekin batera, maisu-maistraren bidez ikasten du haurrak kide den gizartearen parte izaten eta norberaren ingurunearen eredu kultural erabakigarrien barneratzea egiten. Maisu-maistrarekin elkarrekintzan, haurrak barneratzen du eskola-eremuan bizi duen mundua eta taldearen bizimoduan egokitu eta integratzen da, talde edo komunitatearen ohiturak, balioak, jarrerak, arauak edota jokabide-ereduak barneratuz.

Metodologia mistoan oinarrituta, *diseinu esploratorio sekuentzialaren* bidez, fase kualitatiboan bildu dira Bizkaiko 11 maisu-maistraren elkarriketen diskurtsoak. Horietatik abiatuta sortu da fase kuantitatiborako galdeketa, 256 maisu-maistraren erantzunak jasoz, eta azken fasean, bi emaitza-multzoen ondorio integratuetara iritsi da. Horrenbestez, ikerketak aditzera eman du Haur Hezkuntzako maisu-maistrak, bi urteko haurren enkulturazio-eragile gisa, irudikapen sozialak sortzen dituela eta azpimarratu da maisu-maistraren hasierako, etengabeko eta garapen profesionalean zeharreko formakuntzaren garrantzia; alde batetik, maisu-maistrari

norberaren enkulturazio-prozesuarekiko usteen kontzientzia hartzen laguntzeko, eta, bestetik, bi urteko haurren garapen integralean eragin soziokulturalaren garrantziaz ohartarazteko. Horrez gain, ondorioztatu da garrantzitsua dela bi urteko haurren maisu-maistren enkulturazio-prozesuarekiko irudikapen sozialen ezaguera, argigarria izan daitekeelako adin goiztiarreko haurren enkulturazio-prozesuaren hobetzeari begira. Ikerketan eraikitako galdeketari dagokionez, azpimarratu da aztertutako konstruktua azaltzen duten hiru faktoreak (*Errutinak, Zer transmititu, Nola transmititu*) etorkizuneko ikerketari begira kontuan hartzearen garrantzia, bidea urratu baitezake Haur Hezkuntzako zein beste hezkuntza-etapa batzuetako maisu-maistren enkulturazio-prozesuarekiko irudikapenen analisiak egin eta jardunbideak aztertu ditzaketen teknikak diseinatzeko.